



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko abenduaren 5a

115. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako neurriei buruzkoa. Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Hortz-protiesigileen Elkargo Ofiziala sortzekoa. Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsitako irizpena (5. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzekoa. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (7. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Foru Legea, pertsona zaharrak familian hartzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako neurriei buruzkoa

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako neurriei buruzko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori, 2002ko urriaren 7ko 93. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, 1. zuzenketa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua, defendatzen ahal-ko da:

Zuzenketa hori 2002ko azaroaren 27ko 112. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

IRIZPENA

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako neurriei buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina abuztuaren 30eko 251/1983 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen legezko arau gisa. Bertan ezartzen da funtzio publikoaren arloko zenbait xedapen foru lege mailako arauen bidez onetsi behar direla.

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen lan-baldintzei buruzko negoziazioak 2002ko apirilaren 15ean bukatu ziren. Egun horretan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen ordezkariak Itun bat izenpetu zuten 2002 eta 2003. urteetara-

ko UGT, CCOO eta CEMSATSE sindikatuarekin (azken honekin bakarrik kontratupeko langileei zegokienez).

Itun horrek kontu batzuk biltzen ditu, arau bihurtu behar direnak. 20. idatz-zatiaren arabera, Administrazioak kasuan-kasuan behar duen maila emanen die arau horiei, onetsi ondoren, indarra har dezaten.

Nafarroako Gobernuak, 2002ko apirilaren 22ko bilkuran berretsi zuen 2002ko apirilaren 15eko Ituna. Agindu ere egin zion Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari hura betearazteko behar diren neurri eta ekinbideak, legezkoak eta erregelamenduzkoak, har zitzala, kasuan-kasuan dagokion organoak onetsi ondoren, indarra hartu ahal dezan.

Hori horrela, Itunak bi aurreikuspen biltzen ditu, Langileen Estatutuko aldaketa bana egitera behartzen dutenak. Bata funtzionarioek familiarendako laguntza hartu ahal izateko betebeharrei dagokie. Bestea diziplina araubidean ezarritako hutsegite larrien zerrandari.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileei dagokienez, 2002 eta 2003. urteetarako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen lan-baldintzei buruzko Itunak neurri batzuk sartu ditu, haien lansariak aldatzen dituztenak. Lansari horiek erakunde autonomo horri atxikiriko langileen berriazko araubideari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru Legean ageri dira. Horregatik beharrezkoa da lege hura Itun horretako aurreikuspenetara egokitzea.

Zehazki, neurri hauek hartu asmo dira: funtzionarioen familiendako ezarritako laguntza kontratupeko langileei ere ematea; lan-istripuaren edo langaioxotasunaren ondorioz aldi baterako ezgaiturik dauden langileei, lansari finkoak ez ezik, gauez, jaiegunetan eta guardietan eginiko txandakako lanagatik, ezgaitu baino lehenagoko hamabi hila-

beteetan kobraturiko diruaren batezbestekoa pagatzea; eta A maila edo taldeko langileei gauze edo jaiegunetan eginiko txandakako lanaren ordaina pagatzea, baldin eta hori haien ohiko lanaldian gertatzen bada. Azkenik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko karrera profesionaleko sisteman aurreikusiriko ebaluazio batzordeei eman asmo zaie langileak hautatzeko epaimahaietako kideendako ordaina, bakar-bakarrik beren lanalditik kanpo badihardute.

Azkenik, sindikatuen ordezkariekin izenpeturiko Itunean beste bi kontu sartu dira. Bi kontu horiek, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuko artikulua ukitzen ez badituzte ere, eginen badira, legezko gaitasuna behar dute, hala nola: funtzionario bihurtzeko beste prozesu bati ekitea, bai Foru Komunitateko administrazioan eta haren erakunde autonomoetan, bai Nafarroako toki entitateetan, eta, aurrekontuetatik kanpo, lan-eskaintza publikoan foruzain lanpostuak sartzeari.

I. KAPITULUA

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bateginean sarturiko aldaketak

1. artikulua. 50. artikuluko 1. idatz-zatikoko c) letra honelaxe geldituko da:

“c) Bere kasa bizi ez den seme-alaba adingabe bakoitzagatik %3,00.”

2. artikulua. 63. artikuluko m) letra erantsiko zaio, hauxe:

“m) Sexu-jazarpena.”

II. KAPITULUA

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikiriko langileen berariazko araubideari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru Legean sarturiko aldaketak

3. artikulua. 10. artikuluko 5. idatz-zatia honelaxe geldituko da:

“5. 100eko 45eko edo hortik goitiko berariazko osagarria kobratzen duten langileek gauze edo jaiegunetan eginiko txandakako lanaren ordainak hartzen ahalko dituzte, baina bakarrik hori ohiko lanaldiaren barruan gertatzen denean; bertan egon beharreko guardiak edo lantokiz kanpoko guardiak espresuki gelditzen dira kanpo.

Langile horiek ez dute behin ere izanen aparteko orduengatik kobratzeko eskubiderik”.

4. artikulua. 13. artikuluko 2. idatz-zatiari beste lerroalde bat erantsiko zaio. Honelaxe geldituko da:

“Txandakako lanik egiten ez duten langileei ordutegi horretan eginiko ordu bakoitzaren ordaina pagatuko zaie, ohiko lanaldia egiten duten langileei izan ezik, horiek ez baitute behin ere ordain hori kobratuko”.

5. artikulua. 20. artikulua honelaxe geldituko da:

“20. artikulua. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikiriko funtzionario eta kontratupeko langileek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen familiendako ezarriko ohiko laguntza bera kobratuko dute, haiendako ezarri bezala”.

6. artikulua. 23. artikuluari beste lerroalde bat erantsiko zaio. Honelaxe geldituko da:

“Karrera profesionaleko sisteman aurreikusiriko ebaluazio batzordeak osatzen dituzten langileek langileak hautatzeko epaimahaietako kideendako aurreikusiriko ordaina kobratuko dute, baldin eta beren ohiko lanalditik kanpo badihardute”.

7. artikulua. Beste xedapen gehigarri bat eransten da, hauxe:

“Seigarrena.- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek, lan-istripu edo lan-gaitasunaren ondorioz aldi baterako ezgaiturik badaude, aldi aldikoak ez diren lansariak ere kobratuko dituzte, hots, gauze edo jaiegunetan lan egiteagatik edo, hala bada, ezgaitu aitzin, abiaburuko lanpostuan egin beharreko guardialdiengatik kobratuko zituztenak. Horretarako, gaineratu beharreko kopurua aldi baterako ezgaitu baino lehenagoko hamabi hilabeteetan izanen zituzten lansari guztien batezbestekoa izanen da.

Edozein gorabehera dela eta, langileek aldi baterako ezgaitu aitzin abiaburuko lanpostuan aurreko hamabi hilabeteetan egiazki jardun ez badute, batezbestekoa aurreko lerroaldean aipatzen diren lansariak, aldi aldikoak ez direnak, kontuan hartuz zenbatetsiko da, betiere lanpostu hartan egiazki lanean jardun duten hilabeteetakoak”.

III. KAPITULUA

Langileendako beste neurri batzuk

8. artikulua. 1. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari beste epe bat ireki dezan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko estatupeko langileak eta kontratupeko langile finkoak fun-

tzionario bihur ahal daitezzen, ekainaren 27ko 5/1990 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarrian, 1992rako Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko ekainaren 23ko 9/1992 Foru Legeko hirugarren xedapen gehigarrian eta Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako neurri buruzko abenduaren 30eko 15/1993 Foru Legeko 4. artikuluan xedatu bezala, eta neurri hauek garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzan.

2. Neurri hauek garatzeko erregelamenduzko xedapenetan zehaztuko da ukituriko langileek bi hilabeteko epea izanen dutela, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera, aukeratu ahal izateko.

9. artikulua. 1. Nafarroako toki entitateek beste prozesu bati ekiten ahalko diote beren zerbitzuko kontratupeko langile finkoak funtzionario bihurtzeko, erregelamendu bidez zehazten den prozedurarekin bat.

2. Erregelamenduzko garapen horretan zehaztuko da toki entitateek bi hilabeteko epea izanen dutela, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera, erabakitzeke beren

zerbitzuko kontratupeko langile finkoak funtzionario bihurtzeko prozesuari ekinen diotenentz. Prozesu horri ekitea erabakiz gero, ukituriko langileek epe bera izanen dute aukeratzeko.

10. artikulua. Nafarroako Gobernuak 2003. urterako lan-eskaintza publikoan gehienez ere 50 lanpostu sartuko ditu foruzain izateko, aurrekontuetatik kanpo.

Xedapen iragankor bakarra. Foru lege honetan lansariei buruz aipatzen diren neurriak, atzera-ko eraginaz, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko dira.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedaturikoaren aurkako maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan Lehenbizikoa. Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamuneari hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Hortz-protiesigileen Elkargo Ofiziala sortzekoa

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak Nafarroako Hortz-protiesigileen Elkargo Ofiziala sortzeko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori, 2002ko urriaren 14ko 94. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz ez da zuzenketarik mantendu, ezta boto partikularrik egin ere.

Iruñean, 2002ko azaroaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

IRIZPENA

Nafarroako Hortz-protiesigileen Elkargo Ofiziala sortzeko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Foru Legeko 44. artikuluko 26. idatz-zatiak adierazten due Nafarroak eskumen osoa duela lanbide elkargoen eta lanbide tituludunetako jardunaren arloan, legeria orokorrekarekin bat.

Artikulu horretan xedaturikoaren arabera, eta Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartu dituen eskumenak ikusirik, Nafarroako lanbide elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legea eman zen. Foru lege horri erregelamenduzko garapena abenduaren 18ko 375/2000 Foru Dekretuaren bidez eman zitzaion, aipatu foru dekretuak Nafarroako lanbide elkargoei buruzko foru legea garatzen duen erregelamendua onetsi baitzuen. Hori horrela, eskaera bat aurkeztu da Nafarroako Hortz-protiesigileen Elkargoa sortzeko. Eskaera Foru Komunitatean aritzen diren eta titulu ofiziala duten profesionalik gehienek izenpetu dute. Izan ere, lanbide horretantxe jarduteko aurkeztu dute eskaera eta foru lege hau izapidaketa horren ondoriozkoa da.

Martxoaren 17ko 10/1986 Legeak, odontologia eta hortz-haginen osasunarekin ikustekoa duten beste lanbide batzuk arautzen baititu, 2.1 artikuluan hortz-protiesigileen lanbidea ezagutzen du, lanbide heziketako bigarren mailako tituludunei dagokiena, eta arlo honetara zabaltzen du jarduteko eremua: produktu, gai, teknika eta prozedura egokiak erabiliz hortz-protiesiak diseinatu, prestatu, taxutu, egin eta konpontzea, mediku estomatologoen eta odontologoen jarraibide eta aginduen arabera.

Bestetik, martxoaren 17ko 10/1986 Legea garatzeko 1594/1994 Errege Dekretuak hortz-protiesigileen lanbidearen edukia zehaztu zuen, egin-kizunei dagokienez. Lehenbiziko xedapen iragankorrean ezarri zuenez, prozedura bat ezarri beharra zegoen arau horrek indarra hartu aurretik lanbidean ari ziren hortz-protiesigileei lanean segitzeko baimena emateko. Prozedura hori eta lanbiderako baimena emateko irizpide nagusiak Lehendakaritza Ministerioaren 1997ko maiatzaren 14ko Aginduaren bidez finkatu ziren.

Ondotik, apirilaren 7ko 541/1995 Errege Dekretuak –Hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrari buruzko 1/1990 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera emana– hortz-protiesietako goi mailako teknikari titulua ezarri zuen.

Lehenago aipatu den arau eta lanbide autonomia kontuan hartuz, komenigarritzat eta beharrezkotzat jo da lanbide elkargo bat sortzea Nafarroako Foru Komunitateko hortz-protiesigileak bildu eta lanbide horren eta bazkideen lanbide-interes ordezkarri eta defendatzaile izanen dena, gizartearen interes orokorrekin bat, eta legeen arabera lanbide horretan jarduteko era antolatuko duena.

Horrenbestez, Nafarroako Hortz-protiesigileen Elkargo Ofiziala sortzeko interes publikoko arrazoiak daudenez, foru lege honen bidez elkargo hori sortzen da.

1. **artikulua.** Izaera eta araubide juridikoa.

Nafarroako Foru Komunitateko Hortz-protiesigileen Elkargo Ofiziala sortzen da, zuzenbide publikoko korporazio gisa. Nortasun juridiko propioa du, eta ahalmen osoa bere helburuak eta eginkizunak betetzeko.

Lanbide elkargoak nortasun juridikoa izanen du foru lege honek indarra hartzen duenetik eta jarduteko gaitasuna gobernu-organoak eratzen direnetik.

2. **artikulua.** Jarduteko eremua.

Nafarroako Hortz-protiesigileen Elkargo Ofizialaren jarduteko eremua Nafarroako Foru Komunitatea da.

3. artikulua. Elkargoko kide egiteko eskubi-dea.

Ondokoak egin daitezke Nafarroako Hortz-protésigileen Elkargo Ofizialeko kide:

1. Odontologoei eta hortz-haginen osasunarekin ikustekoa duten beste profesional batzuei buruzko martxoaren 17ko 10/1986 Legean xedatutakoari jarraikiz, Lanbide Heziketako Bigarren Mailako titulua dutenak, hortz-protésikoen arlokoa.

2. Hortz-protésietako goi mailako teknikari titulua dutenak (apirilaren 7ko 541/1995 Errege Dekretua, Hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoari jarraikiz emana).

3. Lanbidean aritzeko baimena eman zaien pertsonak (uztailaren 15eko 1594/1994 Errege Dekretua, eta Lehendakaritza Ministerioaren 1997ko maiatzaren 14ko Agindua, martxoaren 17ko 10/1986 Legea garatzen duena).

4. artikulua. Lanbidea.

Nafarroako Foru Komunitatean hortz-protésigile lanetan aritzeko ezinbesteko betebeharra da Nafarroako Hortz-protésigileen Elkargoko Ofizialeko kidea izatea, salbu eta beste lurralde bateko Hortz-protésigileen Elkargoko kidea dela frogatzen bada.

5. artikulua. Arautegia.

Nafarroako Hortz-protésigileen Elkargo Ofiziala lanbide elkargoei buruzko legeen, haien estatutuen eta barne araubideko erregelamenduaren arabera antolatuko da.

Xedapen iragankor bakarra. 1. Nafarroako Hortz-protésigileen Elkargo Ofiziala sortzeko batzorde sustatzaileak, foru legeak indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Hortz-protésigileen Elkargoko behin-behineko estatutuak onetsi beharko ditu, honakoak arautzen dituztenak:

a) Elkargoko kide bihurtzeko betebeharrak, elkargoa eratzeko biltzarrean parte hartzeko bidea emanen dutenak.

b) Elkargoa eratzeko biltzarrerako deialdiko prozedura eta haren funtzionamendua. Deialdi hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

2. Hortz-protésigileen Elkargo Ofiziala eratzeko biltzarrak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Elkargoaren behin betiko estatutuak onestea.

b) Elkargoko gobernu-organotako kideak hautatzea.

3. Elkargoaren behin betiko estatutuak, onetsi ondoren, elkargoa eratzeko biltzarraren aktaren ziurtagiriarekin batera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentura igorriko dira. Kontseilariak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua emanen du, Departamentuko organo eskudunak haiek legeekin bat datozela adierazi ondoren.

Azken xedapen bakarra. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzekoa

ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2002ko maiatzaren 27ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztea proposatzen da:

1. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoak euskarak hurrengo arloetan izanen duen araubidea ezarriko du Estatutuetan, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearekin bat betiere: ikasketak-planetan, curriculumetan eta ematen dituen irakaskuntzetan, ematen dituen zerbitzuetan eta unibertsitateko komunitateko kide ororekin sortzen dituen harremanetan.

Zioak: Testua gehiago egokitzen zaio guk defendatzen dugun ereduari.

2. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

Nafarroako Unibertsitate Publikoak bai gaztelaniaz bai euskaraz emanen ditu izaera ofiziala eta Estatuko lurralde osorako balioa duten unibertsitate tituluak lortzeko ikasketak planetan orain diren eta gero batean izaten diren irakasgai guztiak (Unibertsitateen Kontseiluak edo Unibertsita-

tea Koordinatzeko Kontseiluak homologatutako tituluak) eta hautaketa libreko irakasgai guztiak, baldin eta behar adinako eskaria badago, unibertsitateak berak ezarritako gutxieneko ehunekoei jarraituz, zeinek antzekoak izan beharko baitute bai gaztelaniaz bai euskaraz eman beharreko irakaskaietarako.

Zioak: Bermea ematea euskaraz ikasi ahal izan daitezzen bai enborreko irakasgaiak, bai aukerakoak bai eta hautaketa librekoak ere, baldin eta, gaztelaniarako erabiltzen diren irizpide berei jarraituz, behar adinako eskaria baldin badago.

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

3. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztea proposatzen da:

2. artikulua. Euskarazko irakaskuntzak borondatezotasunaren printzipioari jarraikiz gauzatuko dira; horrela, curriculumeko zenbait enborreko irakasgai eta aukerako irakasgai hizkuntza horretan ikasteko aukera emanen da, haren hiztegi teknikoa eta hizkera barneratu ahal izateko.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak curriculum bakoitzean ezarriko du zer enborreko irakasgai oinarrizko beharko diren aipatu helburuak lortzeko, kontuan hartuz behar soziala, benetako eskaria eta prestatutako irakasleen eskuragarritasuna."

Zioak: Testua gehiago egokitzen zaio guk defendatzen dugun ereduari.

4. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

"2. artikulua. Euskararen garapena delarik helburu, Nafarroako Unibertsitate Publikoak curricu-

lum lerroak edo bestelako ikasketak jarriko ditu hizkuntza horretan, titulu berekiak lortze aldera. Halaber, hizkuntza horretan zientzia, kultura eta josteta arloko jarduerak gara daitezzen sustatuko du.”

Zioak: Euskaraz egin daitezkeen titulu berekiak garatzea eta euskarazko ikerketa eta jardue-
ra kulturalen garapena sustatzea.

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

5. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztea proposatzen da:

“3. artikulua. Irakasle-ikasketetan soilik ezarri ahalko da euskarazko lerro elebakarra, hezkuntza sistemaren beharrei aurre egiteko eta euskarazko edo euskararen irakaskuntza emanen dutenak egoki prestatzeko.”

Zioak: Testua gehiago egokitzen zaio guk defendatzen dugun ereduari.

6. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

ANDREAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

“3. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoak irakaskuntza lerro elebidunak jarriko ditu irakasle-ikasketetan, euskarazko irakaskuntzarako beharrezkoak diren tituludunei prestakuntza egokia eskaintzeko.”

Zioak: Ez zaigu iruditzen nahitaezkoak diren Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak eginiko aldeko txostena eta Nafarroako Gobernuaren baimena. Gure ustez, irakasle-ikasketen eskaintzak ikasleen eskariaren arabera izan behar du, eta ez hezkuntza-sistemak beharra izatearen edo ez izatearen arabera.

4. ETIK 7. ERA BITARTEKO ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

7. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4, 5, 6 eta 7. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Guk defendatzen dugun ereduari, artikuluek ez dira beharrezkoak.

8. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

ANDREAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

“4. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoak euskarazko irakaskuntza ofizialak emanen ditu Euskal Filologiako titulazioan.”

Zioak: Euskal Filologiako ikasketak egiteko aukera eskaintzea interes handikoa litzateke euskarazko eta euskarari buruzko ikerketa eta irakaskuntza sustatu eta hobetzearen ikuspegitik.

9. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

ANDREAK AURKEZTUA

4. artikulua ondoen txertatu beharreko artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“5. artikulua. Irakasleak, ikertzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak kontratatze-ko, euskaraz jakitea nahitaezkoa izanen duen haien ehuneko bat finkatuko da, euskarazko irakaskuntza eta ikerketaren eta euskararen erabileraren esparruan egon daitezkeen eta lege honetik erator daitezkeen beharrezkoak erantzutearren.”

Zioak: Lege honek jasotzen dituen xedapenak abiarazteko, euskaraz dakiten irakasle, ikertzaile eta zerbitzuetako langileak kontratatatu behar dira.

10. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

ANDREAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

“6. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta foru lege honek indarra hartzen duenean dauden edo gero batean sortzen diren goi mailako eta unibertsitateko irakaskuntzako ikastegi publikoek ematen dituzten zerbitzu administratiboetan eta irakaskuntzaz bestekoetan, euskararen erabileran Nafarroako Unibertsitate Publikoko gaur egungo estatutuetan jasotako xedapenek arautuko dute.”

Zioak: Estatutu horiek zenbait eskubide ezartzen dituzte gaztelania eta euskara erabiltzeari dagokionez, unibertsitate-erkidegoaren hizkuntz eskubideak bermatzen dituztenak.

11. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

ANDREAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

“7. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta oraingo edo gero bateko goi mailako eta unibertsitateko irakaskuntzako ikastegi publikoen irudi korporatibo eta instituzionala erabiltzeari dagokionez eta zentro horiek herritarrei ematen dieten zerbitzuari dagokionez, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren gaur egungo estatutuek xedatzen dutena izanen da arau.”

Zioak: Estatutu horiek zenbait xedapen ezartzen dituzte gaztelania eta euskara erabiltzeari dagokionez, unibertsitate-erkidegoaren eta oro har biztanleriaren hizkuntz eskubideak bermatzen dituztenak.

**XEDAPENEI AURKEZTURIKO
ZUZENKETAK****12. ZUZENKETA****NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarri bakarra. Foru lege honetako xedapenak goi mailako eta unibertsitate mailako hezkuntzako zentro publikoetan aplikatuko dira, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean orain diren guztietan eta izan daitezkeen guztietan.”

Zioak: Beharrezkoa iruditzen zaigu aukera horiek aintzat hartzea.

13. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen iragankor bakarra. Nafarroako Unibertsitate Publikoak bertan euskararen araubidea ezarri arte, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aplikatuko da.”

Zioak: Beharrezkoa iruditzen zaigu iragate-epe hori aintzat hartzea.

14. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Amaierako bigarren xedapena aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordezte proposatzen da:

“Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hogeitau egunen buruan hartuko du indarra.

Zioak: Testu hori egokiagoa iruditzen zaigu.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustatzekoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko azaroaren 7an egindako Osoko Bilkuran, emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustatzekoa

1. artikulua. Helburuak eta neurriak sentsibilizazioaren arloan.

1. Sensibilizazioaren arloan, Nafarroako Gobernuaren eta haren menpeko erakunde eta entitateen helburuak hauexek dira:

a) Administrazioaren maila guztietan, politikarien nola funtzionarioen artean, sentsibilizazioa generoko berdintasunaren gaitan.

b) Nafarroako gizartearen sentsibilizazioa generoko berdintasunaren gaitan.

c) Generoaren ikuspegia txertatzea administrazioaren jarduketa guztietan.

d) Nafarroako antolamendu juridikoa egokitzea gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren arloan nazioartean dauden araudietara.

e) Ikerketa eta zabalkundea, berdintasunaren gaitan dagoen legeria eta jurisprudentziarena.

2. Helburu horiek erdiesteko neurri hauek gauzatuko dira:

a) Administrazioako langile guztientzako genero berdintasunari eta praktika zuzenei buruzko ikastaroak, jardunaldiak eta mintegiak programatzea.

b) Administrazioako dokumentuen azterketa, bertatik eta Nafarroako legedi indardunetik hizkerara sexista ezabatzea.

c) Neurriak hartzea administrazioek egiten dituzten azterlan, argitalpen eta publizitatean hizkeraren erabileran bazterkeriarik ager ez dadin, administrazio hizkeraren erabilera sexista ez izateko orientabideak emanen dituzten materialak prestatu eta zabaltzea, administrazioaren argitalpenetako estilo batasuna erraztu eta bermatzeko.

d) Funtzio publikoan sartzeko baremoei generoko berdintasunari buruzko ikastaroak gehituko zaizkie.

e) Administrazioak zerbitzu publikoak betetzeko enpresen kontratazioetako lehiaketan baremoei enpresa horiek generoaren arloan praktikak zuzenak izatea gehituko zaie.

f) Nafarroako udaletan emakumearen zinegotzigoak sortzea eta genero berdintasunaren aldeko jarduerak betetzea sustatuko da, kanpaina eta bestelako baliabideak erabiliz, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin elkarlanean.

g) Urtero, Nafarroako aurrekontu orokorretan, behar adina diru aurreikusiko da foru lege hau betetzeko garatzen diren neurriak gauzatzeko.

h) Nafarroako antolamendu juridikoaren azterketa, aldaketak egiteko gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren gaiei buruz Europako Batasunak emaniko zuzentarauen eta nazioarteko komunitateak emaniko arauen arabera.

i) Emakumeengan eragina duten arauen aldizkako jarraipena egingen da, Foru Komunitateko auzitegiek horren inguruan emaniko epaiak aztertuz. Komunikabideetan eta bestelako toki publiko eta pribatuetan etengabeko kontzientziazio kanpainak egingen dira.

j) Genero berdintasunaren aldeko elkarteak bultzatuko dira eta arlo horretan aritzen diren

elkarteei sostengua, ekonomikoa zein bestelakoa, emanen zaie.

k) Foru lege hau garatzeko lanetan generoko gaietan aritzen diren elkarteak inplikaturako dira, bereziki Nafarroako Emakumearen Institutuan ordezkariak izan behar dutenak.

l) Gizonen eta emakumeen aukera berdintasunean eragiten duten alderdiei buruzko azterlanak egiten dira, gizartearen kontzientziatorako erabakien eta jarduketan oinarri izan daitezkeen.

m) Aukera berdintasunerako eragile eta sustaileen prestakuntza sustatuko da, lan, hezkuntza, kultura eta beste arlo batzuetan ekintza positiboak gauzatzeko.

2. artikulua. Helburuak eta neurriak gizarte eta politikako partaidetzaren arloan.

Gizarte eta politikako partaidetzaren arloan, Nafarroako Gobernuaren eta haren menpeko organo eta entitateen helburua izanen da emakumeen parte hartzea sustatu eta areagotzea bizitza politikoan eta gizartean.

Aurreko xedea lortzeko honako neurri hauek erabiliko dira.

a) Gizonen eta emakumeen parte-hartze sozial berdina helburu gisa duten emakumeen elkarteak, edozein motatakoak, sustatzeko kanpainak egiten dira. Neurri honetan, oso kontuan hartuko dira emakumeen elkarte gutxi dauden Nafarroako aldeak.

b) Emakumeen eta gizonen presentzia entitate edo elkarteetako organo erabakitzailerak eta betearazleetan berdintasuneko izatearen alde egiten da, kanpainen bitartez.

c) Emakumeen presentzia alderdi politikoetako organo erabakitzailerak eta betearazleetan berdintasuneko izatea sustatuko da eta, halaber, hauteskundeetarako horiek aurkeztutako hautagai zerrendetan ere, eta hautagai zerrendetan emakumeen presentzia handitzen duten indar politikoak.

d) Komunikabideetan kanpainak programatuko dituzte, gizarte osoari zuzenduak, emakumeek gizartean eta politikan parte hartzearen garrantziaz eta beharraz.

Foru Legea, pertsona zaharrak familian hartzeari buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko azaroaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, pertsona zaharrak familian hartzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Pertsona zaharrak familian hartzeari buruzko Foru Legea

ZIOEN AZALPENAK

Nafarroako Parlamentuak pertsona zaharrei laguntzeari buruzko plangintza-tresna gisa onetsi zuen 1997-2000 eperako Nafarroako Plan Gerontologikoa, eta helburu zuen Nafarroako Foru Komunitatean pertsona zaharrentzako laguntza-aren esparruan aztertutako edo aplikatzen hasitako neurri guztiak koordinatzea.

Plan horrek biltzen zituen 1993an Kontuen Ganbarak hirugarren adinari buruz egindako fiskalizazio txostenean egindako gomendioak, eta bizikidetasun-modu ezberdinei nahiz haien babes juridiko eta ekonomikoari buruzko aipamenak egiten zituen.

Nafarroako gaur egungo gizarteak elkarri laguntzeko harremanak barnean hartzen dituzten bizikidetasun-egoerak agertzen ditu; bereziki, pertsona zaharrei dagokienez. Horrela, haiek dauzkaten zailtasunak gainditzea bilatzen da.

Pertsona zaharrei elkartasuna eta sostengua emateko balore familiarrik oso erroturik daude gure gizartean eta beste modu batean heldu behar izan zaie emakumeak lan munduan kopuru nabarmenean sartzaren ondorioz. Horregatik ezinbestekoa zen errealitate hau kontuan hartu eta estatuan arautzea, eta hala eginda Langileen familia-bizitza eta lan-bizitza bateratzeari buruzko azaroaren 5eko 39/1999 Legearen bidez, eszedentziak edo lanaldi murriztuak aurreikusten baititu, familia osatzen duten pertsona guztiak, ez soi-

lik emakumeek, aukera izan dezaten senide zahar-
rak zaintzeko.

Pertsona bati familian hartuz laguntzeko modua, ukiturikoek berek pentsio moduko egoeratzat hartzen dute. Horrelakoetan abusua edo babesgabeziak gerta daitezke; hori dela-eta, normalean kanpoko bitartekotzarik gabe alderdiek iritsitako akordio baten bidez hasten den harreman hori arautzea beharrezkoa da.

Horrela, ikusi da egoki dela bizikidetasun-egoerak arautzea pertsona batzuk etxebizitza berean bizi direnean, familia bat osatu gabe, alboko linea-
tik urruneko ahaide izanik edo, soilik, adiskidetasun edo elkartasunagatik baturik, eta ahulenari laguntzeko eta bizikidetasuna iraunkorra izateko asmoa dutenean.

Zehazki, pertsona batek edo bikote batek beste pertsona bati edo batzuei, pertsona batzuen eta euren ondorengoaren artean sortzen diren harremanen antzeko baldintzetan, etxean hartze-
ko eginiko eskaintzaren ondorioz sortzen den bizikidetasuna arautzen da. Bizitzaren luzapena eta jaiotza-tasaren beharrekada direla-eta, biztanleria zahartzen doa pixkanaka, eta bizikidetasun-mota hori egituratuz arautuko duen lege babes-emaile bat soluzioa izan daiteke bizikidetasun-mota horren aldeko hautua egiten duten pertsona zahar-
ren ongizate orokorrerako, haien zailtasun ekonomiko eta sozialak konpondu ditzake eta pertsona horiek instituzio geriatrikoetan sartzeaz bestelako aukera bat ekar dezake.

Foru lege honek bi kapitulu ditu ardatz: lehen zatia pertsona zaharrak hartzeko hitzarmena eratzeari buruzkoa da; bigarrenak pertsona zaharra hartzearen amaiera eta amaiera horren ondorioak aztertzen ditu. Xedapen gehigarri bat eta amaiera-
ko xedapen bat ere baditu.

Lehen edo bigarren mailako ahaidetasun graduak ez diren familiaren, pertsonen arteko harremanen, auzoen edo herrien esparruetan pertsona zaharrak aldi baterako edo modu iraunkorrean hartzea kuantifikatu gabeko baliabide soziala da, ez baitago daturik ez erregistrorik administrazio publikoetan, baina badago baliabide hori herrietan nola hirietan errealitate bat izateari buruzko estimazioa.

Horregatik, bidezkoa da arautzea norberarena ez den familia esparruetan familiako elkarbizitza egoerak arautzea hartzailiek dirua jasotzen dutenean hartutako pertsonengandik, nahiz eta elkarbizitza hori loturik egon adiskidetasunari, auzo hurbiltasunari edo zaharrari, ongizatea handiago izan dezan, familia tratua eman nahiari.

Lege honen xedea da norberaren familian ez den batean zaharrei emandako zaintza eta laguntzaz bestelako egoera hauek arautzeko oinarriak ezartzea, Foru Komunitatean erabilgarri dauden bizitokirako zerbitzu guztien artean adineko pertsonak libreaki aukeratu dezaketenean beste gizarte zerbitzu publiko bat, laguntza pertsonalizatua eta familiarra haien elkarbizitza inguruetik urrundu gabe emateko helburua duen zerbitzu bat alegia.

I. KAPITULUA

Pertsona helduen harrera

1. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru lege hau aplikatuko zaie Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan egiten diren familiako harrerari, pertsona zaharren eta familien, bikoteen edo bakarrik bizi diren pertsonen arteko.

2. artikulua. Kontzeptua.

Familiako harrera da pertsona zaharrei familia-
ko zainketa arrunt eta pertsonalizatuak ematea; horren bidez, haien bizi kalitatea hobetzen da eta modua ematen zaie bizitza independente bat izateko ohiko ingurune baten baitan. Familiako harreman ondoko irizpideei jarraituko zaie:

1. Pertsona hartzailak eta hartutako pertsonak ohiko etxebizitza berean biziko dira, pertsona hartzailena nahiz hartutako pertsonena izan, lehenbizikoek bigarrenak zaintzeko, jaten emateko, laguntza emateko, haien ongizate orokorraren alde egiteko eta gaixorik daudenean zaintzeko.

2. Pertsona hartzailak eta hartutako pertsonak laguntza emanen diote elkarri, eta etxeko lanak hitzartutako moduan partekatuko dituzte, betiere alderdi bakoitzaren aukera errealean arabera.

3. Prestazio honetarako prezio bat ezarriko da, pertsona zaharrentzako zentro eta zerbitzuetan ezarritakoen esparruaren barnekoa, eta laguntzak emanen zaizkie osoki ordaindu ezin dutenei.

4. Pertsona hartzailak tutoretza eta kuratela eratzea sustatu ahalko dute, baldin eta hartutako pertsonak haren menpe jartzeko egoeran badaude.

3. artikulua. Modalitateak.

1. Familiako harrera izan ahalko da aldi baterakoa edo iraunkorra, famili bizikidetasuneko modalitate hau aukeratzen duen pertsona zahar-
rak erabakitakoaren arabera, eta ikuskapenaren ardurak daukaten gizarte-zerbitzuen txostena beharko da.

2. Iragankorra izanen da aldi baterako harrera, pertsonari zuzeneko bere ahaideak atsedena hartzen ari direnean edo gaixorik daudenean laguntza eman ahal izateko, edo erakunde batean sartu aurreko egokitzapen-fase gisa.

3. Behin betiko harrera gertatuko da pertsona zaharraren egoerak edo haren borondateak hala-korik komenigarri egiten dutenean; eskualdeko gizarte zerbitzuek aurretiaz aldeko txostena eman beharko dute horretarako.

4. artikulua. Harrera-hitzarmena.

1. Harrera-hitzarmena da hirurogeita bost urte baino gehiagoko pertsona bat pertsona bati edo familia bati lotzea, ahaidetasun harremanen antzeko baldintzetan eta behar duten laguntza emateko betebeharrarekin.

2. Harrera-hitzarmenaren bitartez hartzaileak edo hartzaileek pertsona bat bakarria hartu ahal izanen dute, salbu eta behar bezala kreditatu beharko diren aparteko egoeretan.

3. Harrera-hitzarmenak ez dakar berekin ondatsunen legezko administrazioa ez eta hartzaileak hartutako pertsonen legezko ordezkariak izatea ere.

4. Harrera-hitzarmen bat izenpetu nahi duten pertsona edo familia hartzaileek administrazioaren baimena lortu beharko dute. Baimenaren ebazpena ezinbesteko baldintza izanen da harrera-hitzarmena foru lege honen bitartez sorturiko erregistroan inskribatzeko.

5. Administrazioak aldizka hitzarmena egoki betetzen ote den begiratu beharko du, bai eta hartutako pertsonen baldintzak ere; bereziki, pertsona horien ongizate fisikoa, psikikoa eta soziala.

6. Hartutako pertsonaren osasuna, segurtasuna eta ongizate psikikoa harrera-baldintzek mehatxaturik edo konprometituri badaude, edo harretarako eskaturiko baldintzak modu larrian urratzen badira, administrazioak egoki jotzen dituen kaute-lazko neurriak hartu ahal izanen ditu.

7. Harrera-hitzarmenak nahitaez jaso beharko duen edukia erregelamenduz ezarriko da.

5. artikulua. Harrera, gizarte-zerbitzu gisa.

Foru lege honek araututako pertsona zaharren harrera antolatzen da erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzu gisa, erabiltzaileei familia-giroko laguntza pertsonalizatu egokia eta haien erkidego-ingurunean egotea bermatzeko.

6. artikulua. Foru lege hau garatu eta aplikatzeko eskudun den administrazioa.

1. Foru administrazioari dagokio, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuaren bitartez, foru lege hau garatu eta aplikatzea eta zerbitzua-ren plangintza, kudeaketaren kontrola, erregistroa, ikuskaritza, prezioak zehaztea eta hartutako pertsona zaharren ongizate-baldintzak bermatzeko esku-hartze babeslearen eginkizunak.

2. Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez arautuko du zerbitzu hori ematea, xede gisa izanik zerbitzua hurbiltzea hura eskatzen duten herritar zaharrei; halaber, botere publikoen babes-ekintza ere arautuko du.

7. artikulua. Hartzailen eta hartutako bete-kizunak eta hautaketa.

1. Harrerak eskatzen du hartzaileek eta hartutako pertsonak ez edukitzea haien artean bigarren gradu bitarteko ahaidetasunik, adindunak izatea eta jarduteko gaitasun osoa izatea, edo hartutako pertsonari dagokienez gaitasun hori haien legezko ordezkarien, haien kuratela duen pertsonaren edo testamentuz besteko tutoretza izendatzeko agirian hautaturiko pertsonen baimenaz ordezteko edo osatzea. Borondate ordeztu edo osatuaren kasuan, epailearen baimena beharko da, eta hartutako pertsonari edo pertsonari entzun beharko zaie, ezaguera nahikoa badute.

2. Pertsona zaharren adina ezin da hirurogei urte baino gutxiagokoa izan, eta pertsona hartzaileak edo hartzaileek osasun-egoera egokia izan behar du pertsona hartuak edo hartuek beharrezko dituzten zainketak edo/eta laguntzak eskaini ahal izateko.

3. Pertsona hartzaileak edo pertsona hartzaileek hartutako pertsonaren edo pertsonen onura bilatuz jardunen dute betiere, harrera-hitzarmenaren ezarritako epean. Oro har, epe hori hiru urte baino gutxiagokoa ez da izanen, salbu eta aparteko egoeretan.

4. Pertsona hartzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitza baten titularrak izatea, jabetzapean nahiz alokairuan.

b) Zaintzaile nagusiak 25 eta 65 urte bitarteko adina izan beharko du, osasun ona izan beharko du eta etxeko lan arruntei aurre egitea galaraziko dioten eragozpenik ez du izan beharko.

Hala eta guztiz ere, hartzaile gisa jarduten jarraitu ahal izanen dute, administrazioak horretarako aurretiazko baimena emanda, 65 urte baino gehiago izan eta zerbitzua ematen jarraitzeko baldintzetan dauden pertsonak, betiere onuradunak

hala nahi badu eta adina denean zerbitzua baldintza egokietan ematen jarraitzeko betetzen ez den baldintza bakarra.

Salbuespen horrek eragina galduko du hartzailea laguntza egokia emateko baldintzetan ez dagoela kreditatzen denean.

Adinaren albuespena ezin izanen da aplikatu familiako beste kideren bat zerbitzua ematen jarraitzeko prest dagoenean, baldin eta harrerako titulartzat hartzea eskatzen badu.

c) Hartzaile nagusiak denbora, gaitasuna eta berezko joera izan beharko ditu harreraren ezinbestekoak diren laguntzak emateko.

d) Familia bakoitzak ezin izanen ditu bi pertsona baino gehiago hartu, salbu eta behar bezala kreditaturiko aparteko egoeretan.

e) Aurretik ez amaitu izana harrera-kontratu bat ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik.

5. Familiako harrera egiten den etxebizitza iristeko erraza den hiri edo herri ingurune batean egongo da, eta behar diren baldintza higieniko eta osasunezkoak, ur korronea, argi elektrikoa eta komuna izanen ditu; ez du izanen pertsona helduaren ibilera zailduko duten arkitektura oztoporik ez eta trabarik ere.

8. artikulua. Espedienteen tramitazioa.

1. Espedienteen tramitazioa, bai pertsona zahararen eskabidearena bai pertsona hartzaileena ere, oinarritzko gizarte zerbitzuek egiten dute, eta Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentura bidaliko dira, interesdunek haiek sinatu ondoren, behar diren txosten teknikoekin eta eska daitekeen gainerako dokumentazioarekin batera.

2. Oinarritzko gizarte zerbitzuek harrera eskatu duten pertsona zaharrak zaintzeko egokien jotzen dituzten familia hartzaileak hautatu eta proposatuko dizkiote Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuari. Horretarako, laguntza-zerbitzu tekniko bat izanen dute.

3. Egokitasun-adierazpena egiten da familia hartzaileei buruz, pertsona zaharrei buruz eta kasuan kasuko harrera-hitzarmenari buruz, eta egiten da txosten teknikoak, hala psikologikoak nola sozialak, eman ondoren. Horretarako, oinarritzko gizarte-zerbitzuek Gizarte Ongizate Departamentuak eskainitako harrerari laguntzeko zerbitzu berariazko bat izanen dute.

4. Aipatutako txosten teknikoetatik ondorioztatuko balitz familia hartzaileak edo harrera eskatu

duten pertsonak ez direla egokiak harrerarako, eskabide hori ezetsia geldituko litzateke.

Txosten teknikoetatik ondorioztatuko balitz egokitasunik eza kasu zehatzerako dela, baina beste harrera batzuk posible direla, eskabideak itxaron zerrendara pasako dira.

5. Harrerarako egokitzat deklaraturiko familia hartzaileen eta pertsona zaharren eskabideen zerrenda Nafarroako Gobernuak Ongizate Departamentuak zentralizatu eta gaurkotuko du.

9. artikulua. Eraketaren baldintza formalak.

1. Harrera-hitzarmena eskritura publiko bidez eratu behar da; eskritura hori behar den erregistroan inskribatu beharko da.

2. Eskritura publikoak adierazi behar ditu alderdi bakoitzari dagozkion eskubide eta betebeharrak.

II. KAPITULUA

Hartutakoaren eta hartzailearen arteko harremana amaitzea

10. artikulua. Harremana amaitzeko arazoak.

1. Harrera ondoko arazoengatik amaituko da:

a) Harrera-hitzarmenean ezarritako arazoengatik.

b) Hartzaileak eta hartutakoak ados jarri eta hala erabakitzen dutelako.

c) Bi aldeek nahi dutelako; borondate hori idatziz adieraziko da. Harremanaren amaiera fede emateko moduan jakinaraziko zaio beste aldeari, hiru hilabete lehenagotik.

d) Alde batek nahi duelako, beste aldeak dagozkion betebeharrak ez baditu betetzen edo bizikidetasuna zailtzen duen arazoiren bat egozten ahal bazaio. Halakoetan, harremanaren amaierari buruzko jakinarazpenean arazoak azaldu beharko dira eta berehalako eragina izanen du.

e) Hartutakoa edo hartutakoak hiltzean edo haren/haiei heriotza deklaratzeko.

f) Hartzailea edo hartzaile biak, baldin eta bikote hartzailea bada, hiltzean edo haren/haiei heriotza deklaratzeko. Haietako baten heriotzak orobat ekar dezake harrera-hitzarmenak ezarritako kontraprestazioa berrikustea eta harrera-hitzarmena amaitzea, baldin eta bizirik dirauenak onartutako betebeharrari aurre egiterik ez duela justifikatzen badu. Hala bada, hiru hilabete lehenago jakinarazi beharko dio pertsona hartuari.

2. Harreraren amaitzeak ukituriko pertsona hartuak administrazioak beste harrera-hitzarmen bat eskaintzeko lehentasuna izanen du.

11. artikulua. Harrera amaitzearen ondorioak.

1. Harrera amaitzen den kasu guztietan, pertsona hartuak edo pertsona hartuek etxebizitza uzteko epe eta baldintzei dagokienez, aldeek harrera-hitzarmenean adierazitako borondateari begiratuko zaio.

2. Amaiera 10.1 artikuluko c) eta d) letretan adierazitako arrazoiengatik gertatzen bada, eta harrera egiteko baldintzak eta denbora direla medio aberaste bidegabea gertatu bada, bere burua kaltetuztat jotzen duen aldeak kalte-ordaina eskatu ahalko dio beste aldeari.

3. Harreraren amaiera foru lege honen bidez sortutako erregistroari jakinarazi beharko zaio.

12. artikulua. Plan gerontologikoa.

Nafarroako Gobernuak prestatuko duen plan gerontologikoan jasoko da pertsona zaharrak familian hartzearen modalitatea laguntza-formuletako bat gisa, zeinak, berezkoa duen kontratu askatasuna errespetatuz, bete behar duen helburu soziala aintzat hartzen duen beren buruaz baliatzeko zailtasunak dituzten adineko pertsonen baldintza batzuk, hau da, familian integratzea eta gizartearen parte izaten segitzea, eskaintzeari dagokionez.

13. artikulua. Onuradunen hautaketa, uko egitea eta finantzaketa.

1. Administrazioak ebatziko ditu interesatuen eskaerak, eta horretarako pertsona zaharren beharrak eta hartzaillearen ezaugarriak bateratu beharko ditu, zenbait alderdi aintzat hartuta, hala

nola, hartua den pertsona edo pertsonak eta hartzailleek batak bestearekiko onarpena ematea, gizarte zerbitzuen aldeko txostena, hartzailen eta hartzea eskatzen duen pertsonaren txosten medikoak eta pertsona zaharra haren ohiko inguruetik mugitzea desegokia izatea.

2. Eskaerei uko egiteko kausak hauexek dira: eskatzailearen adimeneko gaixotasuna, hartua den pertsonak bizi behar duen lojamenduaren desegokitasuna, familia hartzaillearen osasuna eta eskatzailearen eta familia hartzaillearen arteko bateraezintasuna.

3. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak laguntza zehatzak finkatuko ditu hartutako pertsonentzat, beste lojamendu mota batzuetarako ere ezarritakoen ildotik.

Xedapen gehigarri bakarra. Familietan hartutako pertsona zaharren erregistroa.

Nafarroako Gobernuak familietan hartutako pertsona zaharren erregistroa sortuko du, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren menpe. Bertan erregistratuko dira pertsona zaharrak beraienak ez diren familietan kontraprestazio ekonomikoarekin hartzeko Nafarroako Foru Komunitatean formalizaturiko itun edo akordioak, administrazio publiko eskudunak esku hartzen duenean horietan.

Erregistroan bilduko dira gainera hartzailen eta hartutakoen bajak, bertan behera utzitako harrerak eta horren arrazoiak, bai eta egokitzat jotzen diren bestelako datu garrantzitsuak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera hartuko du indarra.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	